

12. IKASGAIA.- KAPITALEKO SOZIETATEEI BURUZKO LEGEA.

Aurkibidea

- Helburuak
- Urteko kontuak eta gestio txostena auditore batek berrikusteko obligazioa. Arau orokorra eta salbuespenak.
- Auditoreak izendatzeko legezko suposamendu desberdinak
- Glosategia

12.1. HELBURUAK

Orain arte kontuen auditoriari buruz aztertu ditugun ikasgaietan (programaren lehenengo atala), kontuen auditoria, kontuen auditoriari buruzko Legearen eta bere Erregelamenduaren erregulazioa kontuan izanik aztertu dugu. Aipatutako arau horiek, eskusiboki, kontuen auditoria erregulatzen dute. Baina programak, hiru atal ditu. Bigarren atalean, 12. eta 13. ikasgaietan, kontuen auditoria, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen ikuspegitik aztertzen da. Azken lege honetan, kontuen auditoria, 263. artikulutik 271. artikulura, biak barne, erregulatzen da. Hala ere, guk ez ditugu artikulua guzti hauek aztertuko, horietako batzuk, programaren lehenengo atalean aztertu dira baitira. Ondorioz, 12. eta 13. ikasgaietan, Kontuen Auditoriari buruzko Legean erregulatuta ez dauden baina Kapitaleko Sozietateei buruzko Legean erregulatuta dauden gaiak aztertuko ditugu.

Ikasgai honetan, auditoreen izendapen suposamendu desberdinak aztertzen dira. Auditoreari sozietateak borondatez izenda diezaioke bazkideen Batzarren bidez. Baina, beste kasu batzuetan, izendapena ez da borondatezkoa. Kasu horietan, hasera batean, izendapena Batzar Nagusiari dagokio eta, salbuespen gisa, Merkataritzako Erregistratzaileari edo Epaileari.

Ikasgai hau bukatzean, ikasleak hurrengo gaiak ezagutuko ditu:

- Nork egin dezaken auditorearen izendapena
- Izendapenaren arau orokorra eta bere salbuespenak. Auditore titularren eta ordezkoren izendapena.
- Auditorearen ordainketa modu desberdinak

12.2. URTEKO KONTUAK ETA GESTIO TXOSTENA AUDITORE BATEK BERRIKUSTEKO OBLIGAZIOA. ARAU OROKORRA ETA SALBUESPENAK.

Kapitaleko Sozietate buruzko Legeak 263. artikuluan dioenez, hasiera batean, sozietate anonimoak eta erantzukizun mugatuko sozietate guztiek auditore bat izendatu behar dute beren urteko kontuak ikuska ditzan. Salbuespen gisa, ez dute auditorerik izendatu behar, bi ekitaldi jarraituetan, ekitaldi bakoitza ixten denean, gutxienez, hurrengo zirkunstantzietatik bi gertatzen badira:

- Aktiboaren kontusailek guztira 2.850.000 euro ez gainditzea.
- Negozioetako urteko zifraren zenbateko garbiak 5.700.000 euro ez gainditzea.
- Ekitaldian zehar enplegatutako langileen batz bestekoak 50 ez gainditzea.

Auditorea izendatzeko obligaziorik ez duen sozietateek, bi ekitaldi jarraituetan aurreko bi zirkunstantzia ez badituzte betetzen (zifrak altuagoak direlako), auditorea izendatu beharko dute.

Sozietatea eratzen den lehenengo ekitaldian, transformatzen edo bat egiten denean, sozietateek ez dute auditorea izendatzeko obligaziorik, ekitaldi hori ixtean, aurreko zirkunstantzietatik bi betetzen badituzte.

12.3. AUDITOREAK IZENDATZEKO LEGEZKO SUPOSAMENDU DESBERDINAK.

Auditorea Batzar Nagusiak izendatzea

Auditoria burutuko duten pertsonak Batzar nagusiak izendatuko ditu ikuskatu behar den ekitaldia itxi aurretik. Kontuen auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden profesional bat edo batzuk izendatuko dira.

Batzarrak pertsona fisiko nahiz juridiko bat edo gehiago izenda ditzake, hauek batera arituko direlarik. Izendatu direnak pertsona fisikoak direnean, Batzar nagusiak auditore titularren adina ordezko izendatu beharko ditu.

Batzarraren izendapen akordioak, zein pertsona auditore izango diren erabakitzeaz gain, karguaren iraupena, ordainsaria, etab... erabakiko ditu.

Batzar nagusiak ezin ditu auditoreak bidezko kausarik gabe errebokatu izendatu ziren epea bete baino lehen.

Auditorea errebokatzeko bidezko kausak Legea edo Auditoria Kontratua urratzea izango dira.

Bidezko kausen adibideak:

- Auditoreak lortutako frogekin bat ez datorren txostena egitea.
- Sekretu profesionala ez gordetzea.
- Informazio pribilegiatua norberaren probetxuan erabiltzea.

Gainera, auditoria kontratuan auditorea errebokatze bidezko kausak zehaztu daitezke.

Auditorea Merkataritza Erregistratzaileak izendatzea

1.- *Sozietate bat ikuskatua izan behar denean*, Batzar nagusiak ez baditu auditoreak izendatu ikuskatu beharreko ekitaldia itxi baino lehen, edo izendatutako pertsonak ez badute kargua onartzen edo ezin badituzte funtzioak bete, administratzaileek, obligaziodunen sindikatuko komisarioak nahiz edozein akziodunek, sozietatearen egoitzako Merkataritza Erregistratzaileari auditoria burutu beharko duten pertsonak izendatzea eska diezaioke.

2.- *Sozietate bateko urteko kontuak auditore batek ikuskatuak izan behar ez direnean*, sozietate horretan gutxienez kapital sozialaren ehuneko 5a duten akziodunek, sozietatearen egoitzako Merkataritza Erregistratzaileari, ekitaldi zehatz bateko urteko kontuen berrikuspena egingo duen auditore baten izendapena egitea eska diezaioke, ekitaldi horren itxieratik hiru hilabete igaro ez badira.

Auditorearen ordainketa, sozietatearen kargura izango da eta ekitaldi horretako urteko kontuak bakarrik ikuskatuko ditu.

Auditorea epaile batek izendatzea

Bidezko kausa bat egonik, sozietatearen administratzaileek eta auditorearen izendapena eskatzeko legitimazioa duten pertsonak, sozietatearen egoitzako Epaileari, Batzar nagusiak edo Merkataritza Erregistratzaileak izendatutakoaren errebokazioa eta beste baten izendapena eska diezaioke.

Epailearen izendapena posible izateko, Batzar nagusiak edo Merkataritza Erregistratzaileak izendatu duen auditorea errebokatze bidezko kausa bat egon beharko da.

Auditoreen errebokazioa, hasiera batean, Sozietatearen Batzar nagusiari dagokio. Batzarrak, bidezko kausa bat egonik, ez badu auditorea errebokatzen, administratzaileek eta pertsona legitimatuek sozietatearen egoitzako epaileari, auditore horren errebokazioa eta beste baten izendapena eska diezaioke.

12.4. GLOSATEGIA.

Batzar Nagusiaren deialdia

Batzarraren deialdia, bazkideek batzarraren ospakizun lekua eta data ezagutu dezaten egiten da eta, honela, bertara joan daitezen eta bertan tratatuko diren gaiez informatuak egon daitezen.

Batzar nagusiaren deialdia *administratzaileek* egingo dute. Ohizko Batzar bat bada (urteko kontuen onesperako, gestioari buruz iritzia emateko eta emaitzaren aplikazioari buruz erabakitzeke), administratzaileek, deialdia ekitaldi bakoitzaren lehenengo sei hilabetetan egin beharko dute.

Ez ohizko Batzarraren kasuan (ohizkoa ez den Batzarra ez-ohizkoa da eta, ondorioz, esandako gaiak ez dira tratatuko), administratzaileek, sozietatearen interesentzat komenigarri ikusten duten guztietan egingo dute deialdia. Baita ere, gutxienez, kapitalaren %5.a duten bazkideek eskatzen dutenean egin beharko dute deialdia.

Epaileak ere egin dezake ez-ohizko batzarraren deialdia, akziodunen gutxiengoak (kapitalaren %5.a duten bazkideak) administratzaileei eskatu eta hauek deialdirik egin ez dutenean.

Auditorearen errebokazioa edozein Batzar motatan erabaki daiteke. Baina, gerta daiteke, Batzarraren deialdia egin eta Batzarrean auditorea errebokatzeko gehiengo nahikoa ez lortzea. Kasu horretan, errebokazioa epaileari eskatuko zaio. Gerta daiteke, administratzaileek Batzar nagusiaren deialdirik ez egitea beraiek ez dutelako nahi edo deialdia egitea nahi duten akziodunek ez dutelako kapitalaren %5.a (eta ondorioz, ezin dute batzarraren deialdia galdatu Azken kasu guzti hauetan, posible da Epaileari eska errebokazioa eskatzea eta, honek, bidezko kausa bat egotekotan, auditorea errebokatuko du.

Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorra

Erregistroei buruzko gai guztiak Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorrari dagozkie. Zuzendaritza Orokor hau Justizia Ministerioaren menpe dago. Norbaitek Merkataritzako Erregistro Lurraldetar batean dokumentu bat inskribatu nahi badu eta erregistratzaileak ezezkoa eman, pertsona horrek, helegite bat tartera dezake Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorraren aurrean, azken honek hartuko duela erabakia. Erregistroko gaien inguruan jarri diren helegiteei buruzko erabakiak hartzen ditu Zuzendaritza Orokor honek. Berak hartutako erabakiak kontuan hartu behar dira. Erregistroen zaintza eta ikuskapena dagokio.